

XX. RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA

AZKEN ERABAKIA

XX. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria epaitzeko Andoaingo Udalak izendaturiko epaimahaiak -Jose Antonio Pérez Gabarain mahaiburuak, Jose Inazio Basterretxea, Arantxa Urretabizkaia, Agustin Errotabehere, Aitor Zuberogoitia eta Alazne Aiestaranek, eta idazkari gisa eta, beraz, hizpidez baina hautespiderik gabe, Nekane Goikoetxeak- adostu du ondorengo *azken erabakia* hartu eta ezagutzera ematea.

1.- Dakizuen bezala, euskaraz egindako kazetaritza suspertzea da sari honen helburu nagusia; kazetariak urtebetean eginiko lana behatzea eta baloratzea, berriz, epaimahai honen egitekoa.

2.- Eskerrak eman beharrean da Epaimahaia, bai komunikazio-ikasketak eskaintzen dituzten unibertsitateetako irakasleei, baita hedabideetako zuzendariari ere, asko izan direlako aurten sarira aurkeztu diren kazetari berrien lanak. Oro har, lan txukun askoak aurkeztu dira, bai gaiez bai moldez. Horietako bat, ordea, beste guztien gainetik nabarmendu da.

Hauxe da epaimahai honen erabakia:

* **2.1.- “Kazetari berria”** ataleko saria, 3.000,- euroz, diplomaz eta Xabier Laka eskultorearen oroitikurraz hornitutakoa. Kazetaritza munduan lehen urratsak egin dituzten gazteentzat pentsatua, gehienez 27 urte dituztenek dute aurkezteko aukera.

Aurtengo irabazleak honako merezimenduok ditu Rikardo Arregi Kazetaritza Sariko epaimahaiaren iritziz:

- Ofizio handia erakutsi du lan honen egileak. Atzerrian eginiko erreportajeetan gazte baten ahotsa nabaritzen da, baina jasole ororentzat modu ulergarrian emana.
- Gizarte ezberdinen panoramika oso egokiak, osatuak eskaini ditu.
- Bere erreportajeetan, lekukotza interesgarriak lortu eta dokumentazio lan osatuarekin uztartu ditu; informazio-iturri anitzak erabiliz gainera.
- Berrikuntza dakar multimedien ikuspegitik, ahalegin polita dugu iturri anitzak euskarri ezberdinen bitartez emateko. Euskarrien aberastasuna benetan kontuan hartzekoa da.
- Ondo jositako eta ongi egituraturako lanak dira.

+ *Sariduna:* **Lander Arbelaitz Mitxelena** jauna.

+ *Saritutako lana:* 2007ko ekainetik 2008ko maiatzera bitartean Argian argitaratutako hiru erreportaje.

* 2.2.- XX. *Rikardo Arregi Kazetaritza Sariko “Epaimahaiaren Sari Berezia”*, diplomaz eta 4.000,- euroz hornitutakoa. Honen bitartez saritzen da epaimahaiak bereziki azpimarratu nahi duen irizpide bat, kasu honetan, xedetaldeari bikain egokitzen asmatu izana.

Ondorengo lanek aitortzen merezi dutela irizten du epaimahaiak, ondorengo arrazoiengatik:

- Hedabide handiagoek arrakasta gutxi erdiesten duten eremuan euskarazko esparru komunikatiboa bikain lantzen dute.
- Naturaltasunez, hedabideetan euskalkiaren erabilera duindu egin dute.
- Bizkaiera batuaren aldeko apustua “*dakigunetik ez dakigunera*” leloak grafikoki azaltzen du. Asmatu egin dute publiko heterogeneoari, saio berezituak eskaintzen.
- Internetera begira indar berezia egin dute, bide-urratzaile dira 2.0 klabean lan egiten.
- Mendebaldeko euskarazko komunikabide hauek modernitateari begira daude, euskaldungoaren gehiengoaren etxea den horri, eta ikuspegi estrategikoa iruditzen zaio hori epaimahaiari.

+ *Epaimahaiaren Sari Bereziaren jasoleak: ex aequo*

Bizkaia Irratia eta Bizkaie! agerkari digitala.

+ *Saritutako lanak: biek ala biek, 2007ko ekainetik 2008ko maiatzera egindako lanengatik.*

* 2.3.- XX. *Rikardo Arregi Kazetaritza Sari*ko “*Sari Nagusia*”, diplomaz, 9.000,- euroz eta Xabier Laka eskultorearen oroitikurraz hornitutakoa. Honen bitartez saritzen direnak kalitatea, berrikuntza eta eredugarritasuna dira.

Hauek dira epaimahaiaren ustez azpimarratzeko alderdiak:

- Komunikazio-gaitasunaren eredu: zorrotz, zehatz eta aberats ematen ditu berriak.
- Pasioa transmititzen du, ofiziora ekarri baititu praktikak emandako erakutsiak.
- Iritzien aberastasuna aparta da, ideiak ongi aukeratuz eta hobeto harilkatuz.
- Kirol arloan egiten duen kazetaritza moldea eredugarria da: azpimarratzekoak, gaiaren ezagutza harrigarria eta hizkuntzaz egiten duen erabilera biribila.

+ *Sariduna*: **Xabier Usabiaga Oiarzabal jauna.**

+ *Saritutako lana*: 2007ko ekainetik 2008ko maiatzera Berria egunkarian, Euskadi Irratian zein Euskal Telebistan egindako lanak.

3.- Ohorezko Aipamenari helduko diogu jarraian. Ohorezko Aipamena norabide ezberdinetan erabili izan du Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren ibilbidean zehar garaian garaiko epaimahaiak. Batzuetan, bizi osoan euskarazko

kazetaritzan egindako ibilbidea saritzeko; besteetan, oso gauza ohargarriak azpimarratzeko.

Aurtengo sarituaren merezimenduak hauek dira:

- Sarituaren ibilbidea zinez oparoa izan da, konpromiso handiarekin hartutako bidea, hain zuzen ere.
- Euskal kulturaren inguruan erakutsi duen jarrera bultzatzailea ere sarigarria iruditzen zaio epaimahaiari. Sarituak zubi-lana gauzatu du euskal kulturaren zabalkundean; izan ere, beste eragile batzuek jorratutakoa gizarteratzea izan da bere jarduera nagusienetako bat. Horrela, azpimarratzekoak dira, *ez dok amairu* taldea bultzatzeko egindako izugarrizko lana eta bertsolaritzan eta trikitixaren zabalpenean egindako ibilbidea. Sarituak lan hori bere gain hartu izan du, plazaratu eta zabaldu egin du beste batzuek egindakoa. Gainera, medio handietan lan egiteko aukera ere izan duenez, oihartzun handia sortu da bere ekimenen inguruan.
- Bere lanak 60ko eta 70eko hamarraldietan eman zuen etekin nabarmenena. Eta bultzatzaile lana aztertzailearen zereginekin osatu du azken urteetan; ezingo dugu aipatu gabe utzi, kulturaren gaineko ikerketak egiten dabilela saritua gaur egun.

- Telebistan euskaraz entzun genituen lehen hitzak bereak izan ziren, *Telenorten*. Etxeko euskara etxetik kanpo egin zitekeela eta, are gehiago, telebistan bertan ere aditu zitekeela sinestarazi zion euskaldungoari. Gainera, Herri Irratian euskaraz egiten lehenengoetakoa izan zen. Beraz, euskarazko kazetaritzarekiko konpromiso irmoa azpimarratu nahi du epaimahaiak.

Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren Ohorezko Aipamena **Jose Mari Iriondo Unanue jaunarentzat** da.



Honaino, bada, *XX. Rikardo Arregi Kazetaritza Sariari* dagokion **azken erabakia**. Epaimahaikideok ontzat ematen eta sinatzen dugu gaur, Andoainen, bi mila eta zortziko ekainaren hogeita zortzian.

José Antonio Pérez Gabarain

Alazne Aiestaran

Jose Inazio Basterretxea

Agustin Errotabehere

Aitor Zuberogoitia

Arantxa Urretabizkaia

Nekane Goikoetxea